

31

EUSKARAREN SENTSIBILIZAZIORAKO PILULA 2026

elhuyar

HIZTEGIA

BERRIAK

UMOREA



BERO-GALDA

Soziolinguistika Klusterrak ikerketa bat egin du, eta ondorioztatu du garrantzia eman behar zaiola oinezkotasunari, eremu publikoari eta haurrentzako jolas eremuak sortzeari.

BERO-GALDA.

Calor sofocante.

★ *Egarriz iota edo **bero-galdaz** zoratuta. Ibiñ Virgil 103.*

BERO-GALDATAN.

En el calor sofocante.

★ *Bagiñazen bein mendian gora lagun batzuek, orain urte asko dala, udako **bero** galdatan, izerditsu, arnasestuka, oso nekaturik. Ag G 5. **Bero** galdatan ordea, zelai itzaltsua billatu ezazu loberen aritz zahar adaburutsuz gerizatua, edota artondoiz iositako oian doneak itzala eman. Ibiñ Virgil 101. Udako bazkalondo gozakaitzaren **bero-galdatan**, ondar kixkalitan etzan-ta, bere kejak zeru errukitsura bidaltzen dituana. Berron Kijote 139.*

EUSFERA

BERRIAK

Haurren unibertsoa euskalduntzeko egitasmoa da EUSFERA. Maiatzean abiatu zen Euskal Herriko ehun udalerritan eta 0 eta 12 urte bitarteko umeei eta proiektuak 0 eta 12 urte arteko umeak izango ditu ardatz.

Egitasmoak gurasoekin elkarlanean haurren hizkuntza ingurunea euskalduntzea du helburu. Taupa mugimenduak bi proposamen mota egin dizkie gurasoei: herrietan egingo diren jardueretan parte hartzea, edo etxean Eusferaren webgunean jarriko dituzten «misioak» betetzea.



Ekinbidean parte hartzeko bi bide daude. Lehenean, Eusfera.eus webgunean jarriko dituzten misioak bete behar dira. Gurasoen Txokoa atalera jo, eta etxean egin ahal izateko misioetarako atea ireki ahal izango dute han. Horretarako, galdetegi bat bete beharko dute aurrena —euskaraz, gazteleraz edo frantsesez osatu daiteke galdetegia—, eta gurasoen hizkuntza gaitasunaren eta etxeko haurren adinera egokitutako misioen zerrenda bat jasoko dute ondoren.

2036RAKO BESTE 300 MILA EUSKALDUN

BERRIAK



→ Irakurri [hemen](#)

Euskalgintzaren Kontseiluak zehaztu du erronka: beste 300.000 euskaldun behar dira 2036rako

Kontseiluak 'Pizkunderako Erronka 2036' aurkeztu du, euskalduntze erritmoa orain halako bikoia izateko proposamena. Erabilera bost puntu igo eta %20ko langa gaititzea ere badute xede.

UMOREA



Kike Amonarriz
@KikeAmonarriz



Show translation

“SAGARDO Corazón de Jesús”

Itzulpen-akatsak (@mihiluze_eitb -eko #Zazpikia-k) oraindik horren ugari dabilzan honetan, Lordan (Lourdes) erositako kutun edo amuleto honek zaintzen gaitu etxean hizkuntza-akatsetatik.

